Osakidetza



GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

GALDERAK

1.- Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legean jasotako arauen aplikazio-eremua:

a) Aplikazio-eremuak lurralde nazionalean bakarrik du balioa.
b) 1428/2003 Errege Dekretua onartu zenetik, Europar Batasun osoan du balioa aplikazio-eremuak.
c) Aplikazio-eremuak balioa du EAEn.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

2.- Oztopoak eta arriskuak seinaleztatzeari buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Oinezkoentzako pasabideetako goragune guztiak oztopotzat hartuko dira.
b) Zeharkako bandak bakarrik hartzen dira oztopotzat galtzadetan.
c) Zeharkako bandak eta goraguneak oztopotzat hartzen dira beti galtzadetan.
d) Sustapen Ministerioak ezarritako oinarrizko araudia betetzen duten eta seinaleztatuta dauden oinezkoentzako pasabideetako goraguneak ez dira oztopotzat hartuko.

3.- 1428/2003 Errege Dekretuaren 6. artikuluaren arabera, zer motako arau-haustea da zigarro bat bide publikora botatzea?

a) Arau-hauste oso astuna.
b) Arau-hauste arina.
c) Arau-hauste astuna.
d) Arau-hauste izugarri astuna.

4.- Gidatu bitartean telefonia mugikorreko gailuak erabiltzeko debekuarekin lotuta, zer izan behar dugu kontuan?

a) Erabat debekatuta dago telefoniako edozein gailu erabiltzea, entzungailu bat edo biak erabiltzen direnean izan ezik.
b) Erabat debekatuta dago telefonia mugikorreko gailuak erabiltzea gidatu bitartean, edozein kasutan.
c) Debekatuta dago telefonia mugikorreko gailuak erabiltzea gidatu bitartean, eskuez eta entzungailuez baliatu gabe erabil daitezkeenak izan ezik.
d) Debekatuta dago telefonia mugikorreko gailuak erabiltzea gidatu bitartean, eskuak baliatu gabe baina entzungailuak jarrita erabil daitezkeenak izan ezik.



5.- Edozein anbulantzia motatako gidariek DEBEKATUTA dute gidatzea odolean honako alkohol-tasa hau baino handiagoa badute:

a) 0,3 gramo litroko.
b) 0,3 miligramo odolean.
c) 0,15 miligramo litroko.
d) 0,15 gramo litroko.

6.- Garraio publikoko baimenei buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Baimenek, behin eman ondoren, 10 urteko baliozkotasuna dute.
b) Baimenak, behin eman ondoren, ezin dira baliogabetu.
c) Baimenak baliozkoak izan daitezen, haiek ematea justifikatu zuten baldintzen mantentzea aldizka egiaztatzearen menpe geratzen da.
d) Baimenen baliozkotasuna ez da inoiz baldintzatuta egongo haiek ematea justifikatu zuten baldintzei eusten zaiela aldizka egiaztatzera.

7.- Zenbatean behin berritu behar da garraio publiko eta pribatuko baimenen bisatua?

a) Bi urtean behin.
b) Hiru hilean behin.
c) Bi hilean behin.
d) Hiru urtean behin.

8.- Ibilgailu bat garraioko sanitarioko baimen bati adskribatu ahal izateko, honako hauek egiaztatu behar dira lehendabizi:

a) Ziurtagiri tekniko-sanitarioa indarrean izatea eta titularrak ibilgailu bat jabetzan edo finantza-errentamenduan izatea.
b) Ziurtagiri tekniko-sanitarioa indarrean izatea eta titularrak ibilgailu bat jabetzan izatea.
c) Ziurtagiri tekniko-sanitarioa indarrean izatea eta titularrak ibilgailu bat leasing motako errentamenduan izatea.
d) Ziurtagiri tekniko-sanitarioa indarrean izatea besterik ez da behar.

9.- Garraio sanitarioaren baimenak dagokion erregistroan inskripzio bitartez lotutako ibilgailuak baino ez ditu gaituko ditu garraioa egiteko. Nola egin behar da inskripzioa?

a) Ibilgailuaren matrikula inskripzioaren bitartez.
b) Ibilgailuaren jabearen edo alokatzailearen inskripzioaren bitartez.
c) Enpresari lotutako ziurtagiri tekniko-sanitarioaren inskripzioaren bitartez.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

10.- 2013ko uztailaren 23ko PRE/1435/2013 Aginduaren arabera emandako garraio sanitariorako baimenek, garraio hori non egiteko gaitzen dute:

a) Ibilgailuak inskribatuta dauden autonomia-erkidegoan, betiere, ibilgailuen ekintza-eremuari ezarritako mugak errespetatuta.
b) Europar Batasunean, ekintza-eremuaren gaineko inolako mugarik gabe
c) Estatuan, ekintza-eremuaren gaineko inolako mugarik gabe.
d) Euskal Autonomia Erkidegoa, ekintza-eremuaren gaineko inolako mugarik gabe.

11.- 826/2012 Errege Dekretua bete behar duten garraio sanitarioko ibilgailuak:

a) Une oro bete behar dituzte Errege Dekretuan jasotako eskakizunak.
b) Ez da nahitaezkoa Errege Dekretuan jasotako eskakizunak une oro betetzea.
c) Ziurtagiri sanitarioa betetzea baino ez da nahitaezkoa.
d) Ziurtapen teknikoa betetzea baino ez da nahitaezkoa.

12.- Ziurtagiri tekniko-sanitarioa lortzeko, honako hau egiaztatu behar da:

a) Ibilgailua lehen aldiz matrikulatu zenetik ez direla 10 urte igaro.
b) Ibilgailua lehen aldiz matrikulatu zenetik ez direla 8 urte igaro.
c) Ibilgailua lehen aldiz matrikulatu zenetik ez direla 5 urte igaro.
d) Ibilgailua lehen aldiz matrikulatu zenetik ez direla 12 urte igaro.

13.- Ziurtagiri tekniko-sanitarioa ukatu ahal izango da eskaerarekin batera dagokion dokumentazioa aurkezten EZ bada, honako hau delarik:

a) Ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta erantzukizun zibileko eta penaleko asegurua.
b) 836/2012 Errege Dekretuan adierazitako ezaugarri teknikoak, ekipamendu tekniko-sanitarioa eta langileen hornidura jasotzen dituen memoria, eta ibilgailuaren zirkulazio-baimena.
c) Azterketa teknikoaren fitxa eta eskabidearen inprimaki ofizial normalizatua.
d) b) eta c) zuzenak dira.

14.- Uztailaren 23ko PRE 1435/2013 Aginduaren arabera, gutxieneko zenbateko aurrerapenarekin eskatu behar dute garraio sanitarioko ibilgailuen titularrek ziurtagiri tekniko-sanitarioaren berritzea?

a) Bi hilabete.
b) Hiru hilabete.
c) Lau hilabete.
d) Hilabete.

15.- Ziurtagiri Tekniko Sanitarioen Erregistroan inskribatuta egon behar dute honako hauek:

a) Indarrean dauden ziurtagiriak eta enpresaren titulartasun-aldaketak, besterik ez.
b) Enpresaren eta ibilgailuen titulartasun-aldaketak, besterik ez.



c) Enpresen bajak eta eteteak, eta ibilgailuen jarduera eteteak.
d) Indarrean dauden ziurtagiri tekniko-sanitarioak, enpresaren edo ibilgailuen titulartasun-aldaketak eta jardueraren bajak edo eteteak.

16.- 836/2012 Errege Dekretuaren arabera, garraio sanitarioko ibilgailuek, edozein motatakoak direla ere, besteak beste honako eskakizun hauek bete beharko dituzte zelula sanitarioari dagokionez:

a) Elementu ebakitzailerik gabeko barne-estaldura lauak izatea, eta pixontzi eta botila hautsezinak eramatea.
b) Ezkerreko alboko ate bat eta pazientea sartu ahal izateko adinako irekiera duen atzeko ate bat izatea.
c) Ohatilak eta immobilizaziorako gutxieneko materiala izatea.
d) Anbulantzia motaren arabera, maila bakoitzera egokitutako botika-kutxak izatea.

17.- 836/2012 Errege Dekretuaren arabera, anbulantzia ez-asistentzialen langileen hornidurak honako baldintza hauek bete behar ditu:

a) Emergentzia sanitarioetako teknikariaren lanbide-heziketako titulua duen gidari bat izan behar da gutxienez.
b) Emergentzia sanitarioetako teknikariaren lanbide-heziketako titulua duten gidari bat eta profesional sanitario bat izan behar dira gutxienez.
c) Garraio sanitarioaren profesionaltasun-ziurtagiria duen gidari bat izan behar da gutxienez.
d) Garraio sanitarioaren profesionaltasun-ziurtagiriaren titulua duten gidari bat eta profesional sanitario bat izan behar dira gutxienez.

18.- Hurrengo baieztapenetatik, zeinek egiten du bat 836/2012 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin?

a) EAEn erabiltzen diren anbulantziak Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan bakarrik fabrikatu eta/edo merkaturatu daitezke.
b) Estatuan erabiltzen diren anbulantziak Estatu espainolean bakarrik fabrikatu eta/edo merkaturatu daitezke.
c) Estatuan erabiltzen diren anbulantziak EAEn bakarrik fabrikatu eta/edo merkaturatu daitezke.
d) Estatuan erabiltzen diren anbulantziak Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan fabrikatu edo merkaturatu daitezke.

19.- Hurrengo baieztapenetatik, zeinek egiten du bat 836/2012 Errege Dekretuan ezarritakoarekin?

a) Indarrean sartzen den momentutik, edozein motatako anbulantzien gidari guztiek, gutxienez, garraio sanitarioaren profesionaltasun-ziurtagiria izan behar dute.
b) Indarrean sartzen den momentutik, edozein motatako anbulantzien gidari guztiek, gutxienez, emergentzia sanitarioetako teknikariaren lanbide-heziketako titulua izan behar dute.

c) Indarrean sartzen den momentutik, anbulantzia ez-asistentzial batean plaza huts bat betetzen duten gidari guztiek garraio sanitarioaren profesionaltasun-ziurtagiria izan behar dute.
d) Edozein motatako anbulantzien gidariak 3 urteko gehieneko epe baterako soilik gaitu daitezke.

20.- Ibilgailu moten arabera, zer da anbulantzia bat?

a) Ibilgailu industrial arin bat.
b) Furgoi edo furgoneta bat.
c) Txasis-kabina bat.
d) Ibilgailu industrial trinko bat.

21.- Ibilgailu baten dimentsio-ezaugarriekin lotutako hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Ardatzen eta ardatz bereko gurpilen arteko distantziek eragin zuzena dute ibilgailuaren segurtasunean.
b) Ardatzen eta ardatz bereko gurpilen arteko distantziek eragin zuzena dute ibilgailuaren bizigarritasuna zehazterakoan.
c) Ardatzen eta ardatz ezberdineko gurpilen arteko distantziek eragin zuzena dute ibilgailuaren segurtasunean.
d) Ardatzen eta ardatz ezberdineko gurpilen arteko distantziek eragin zuzena dute ibilgailuaren bizigarritasuna zehazterakoan.

22.- Ibilgailu baten ezaugarri teknikoak honako hauek dira, besteak beste:

a) Erregai-kontsumoa eta barruko espazioak.
b) Erregai mota eta maletategiaren edukiera.
c) Motorra eta erregai-kontsumoa.
d) Ekipamendua eta barruko espazioak.

23.- Ibilgailuaren karrozeriak ezaugarri hauek izan behar ditu, besteak beste:

a) Zurruntasuna eta gaitasuna kolpeak eta bibrazioak xurgatzeko.
b) Kolpeak eta bibrazioak xurgatzeko gaitasuna hobetzeko elastikotasuna.
c) Zurruntasuna eta zaratak blokeatzeko gaitasuna.
d) Lur guztietara egokitzeko aukera emateko moduko elastikotasuna.

24.- Ibilgailuak erabileraren arabera sailka daitezke, eta horien arabera hiru taldetan bana daitezke:

a) Ibilgailu industrial arinak, ibilgailu industrial astunak eta lehiaketako ibilgailuak.
b) Monobolumen, bi bolumeneko eta hiru bolumeneko ibilgailuak.
c) Konpartimentuen konfigurazioaren, kanpoko formaren konfigurazioaren eta prestazioen konfigurazioaren arabera sailkatutako ibilgailuak.
d) Ibilgailu industrialak, ibilgailu bereziak eta turismoak.



25.- Hurrengo elementu hauetatik, zein dira ibilgailuaren segurtasun prebentiboaren parte?

a) ABS.
b) ASR.
c) ESP.
d) Ikuspena eta argiztapena.

26.- Zer segurtasun motaz ari gara bolantearen altueraren erregulazioaz ari garenean?

a) Segurtasun prebentiboa.
b) Segurtasun aktiboa.
c) Segurtasun pasiboa.
d) Segurtasun erreaktiboa.

27.- Honako elementu hauek dira, besteak beste, ibilgailuaren segurtasun pasiboaren parte:

a) Alboetako barrak eta ABS sistema.
b) Segurtasun-uhala eta beirak.
c) Karrozeria eta frenoak.
d) Direkzioa eta esekidura.

28.- Zein da ABS sistemaren funtzio nagusia?

a) Pneumatikoen itsaspen-baldintzak gutxitzean gurpilak irristatzea saihestea.
b) Gurpilei itsaspen-baldintzek ahalbidetzen dutena baino potentzia handiago aplikatzean gurpilak irristatzea saihestea.
c) Ibilgailua mugitzen ari den bitartean frenoak blokeatzea saihesten duen sistema bat da, noranzkoa ez galtzeko helburuarekin
d) Bolante-biraketa bortitz bat gertatu delako bihurgune bat hartzean ibilgailuak irrist egitea saihesten duen sistema bat da.

29.- Zein elementu arduratzen da gasen hedapenetik datorren indarra jasotzeaz, bai eta mugimendua birabarkira bielaren bidez transmititzeaz ere?

a) Pistoia.
b) Segmentuak.
c) Inertzia-bolantea.
d) Ihes-kolektorea.

30.- Nola deitzen zaio pistoiak zilindroarekiko lortzen duen posizio altuenari?

a) Lortutako itopuntua.
b) Goiko itopuntua.
c) Lortutako puntu maximoa.



d) Goiko puntu maximoa.

31.- Zein mekanismoren bidez bihurtzen da pistoiaren goranzko eta beheranzko mugimendua mugimendu birakaria birabarkian?

a) Segmentuen bidez.
b) Inertzia-bolantearen bidez.
c) Bielaren bidez.
d) Zilindroen bidez.

32.- Zein da birabarkiaren funtzioa?

a) Bielarekin batera, pistoien mugimendu alternatiboa mugimendu birakari bihurtzen du.
b) Zilindroaren eta pistoiaren arteko estankotasuna ziurtatzen du.
c) Olioa konpresio-ganberara pasatzea saihesten du.
d) Gasak erretzen direnean sortzen den beroa hustea errazten du.

33.- Goiko aldetik finkatuta dagoen motorraren zer zatitan daude motorraren sarrerako eta iheseko balbulak eta elikatzeko eta pizteko elementuak?

a) Balantzin-ardatzean.
b) Espeka-ardatzean.
c) Kulatan.
d) Karter-ean.

34.- Motor baten espeka-ardatzarekin lotutako hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Birabarkiaren bira kopuru bikoitza eginez egin behar du bira, eta ez da birabarkiarekin sinkronizatuta egon behar.
b) Birabarkiaren bira kopuru erdia eginez egin behar du bira, eta ez da birabarkiarekin sinkronizatuta egon behar.
c) Birabarkiaren bira kopuru bikoitza eginez egin behar du bira, eta birabarkiarekin erabat sinkronizatuta egon behar du.
d) Birabarkiaren bira kopuru erdia eginez egin behar du bira, eta birabarkiarekin erabat sinkronizatuta egon behar du.

35.- Diesel motorrek eta eztanda-motorrek pieza amankomun ugari dituzte. Zein da SALBUESPENA?

a) Pizte- eta elikatze-sistema.
b) Erabiltzen duten erregarri motan bakarrik bereizten dira.
c) Pizte- eta banaketa-sistema.
d) Elikatze- eta abio-sistema.

36.- Zein da banaketa-sistema osatzen duten elementuen egitekoa?

a) Zilindroaren barruko gasen sarrera eta irteera behar den unean eta lekuan erregulatzea.
b) Mugimendua motorretik gurpilera eramatea.
c) Motorraren elementu mugikorren arteko banaketa gauzatzea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

37.- Zilindro-bolumenarekin lotutako hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Zilindro guztien baturak duen gaitasun bolumetrikoa da.
b) Zilindro guztien baturak duen gaitasun metrikoa da.
c) Zilindro batek duen gaitasun bolumetrikoa da.
d) Zilindro batek duen gaitasun metrikoa da.

38.- Zein da hozte-sistemaren zeregina?

a) Motorraren osagaiak ez urtzea.
b) a) eta c) zuzenak dira.
c) Motorraren elementuak ahalik eta tenperatura altuenean mantentzea, piezak hondatzeko arriskurik gabe errendimendu handiagoa lortzeko.
d) Motorraren tenperatura jaistea eta, horri esker, erregai kontsumoa gutxitzea.

39.- Hozte-motak honako hauek dira: (Hautatu erantzun OKERRA)

a) Aire bidezko hoztea.
b) Ur bidezko hoztea.
c) Likido hozgarri bidezko hoztea.
d) a) eta c) zuzenak dira.

40.- Hozte-zirkuitua osatzen duten elementuen artean, honako hauek ditugu: (Adierazi erantzun OKERRA)

a) Erradiadorea.
b) Tapoiak.
c) Zorroak.
d) Balantzinak.

41.- Zein elementuk izan behar du bero-kantitate handiak denbora-tarte laburretan ebakuatzeko gaitasuna?

a) Erradiadoreak.
b) Ponpak.
c) Termostatoak.
d) Haizagailuek.

42.- Zorroak kautxuzko hodiak dira. Zerk zirkulatzen du zorro hauen barrutik?

a) Likido hozgarriak.
b) Erregaiak.
c) Urak.
d) Aireak.

43.- Zein elementuren egitekoa da zirkuituko presioa fabrikatzaileak aurrez ezarritako balio batera mugatzea?

a) Olio-iragazkiarena.
b) Deskarga-balbularena.
c) Olio-ponparena.
d) Egiaztapen- eta kontrol-sistemarena.

44.- Aginte-taulan oliontzi baten irudia duen bonbilla gorri bat dago. Nola deitzen da?

a) Olioaren presio-manometroa.
b) Olio-presioaren manokontaktua.
c) Olio-mailaren neurgailua.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

45.- Zein funtzio betetzen du motorrean koipeztatze-zirkuituak?

a) Atal mekaniko mugikorren arteko marruskadura murriztea.
b) Beroari eustea motorraren errendimendua handitzeko.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) Lurraren irregulartasunek motorrean eragiten dituzten inpaktuak xurgatzea.

46.- Koipeztatze-zirkuituaren osagaiak: (Hautatu erantzun OKERRA)

a) Olio-iragazkia.
b) Bero-trukagailuak.
c) Espeka-ardatza.
d) Olio-ponpa.

47.- Transmisioaren elementuak: (Hautatu erantzun OKERRA)

a) Abiadura-kaxa.
b) Multzo diferentzialak.
c) Tiranteria.
d) Abatzak.

48.- Zein izen du mugimendua motorretik abiadura-kutxara transmititzeko zeregina duen mekanismoak?

a) Errotula.
b) Enbragea.
c) Multzo diferentziala.
d) Ardatz eragile edo transmisio-ardatza.

49.- Zein mekanismo dago mutur batetik diferentzialaren planetarioei eta bestetik abatzei lotuta?

a) Enbrage-mazoa.
b) Multzo diferentziala.
c) Diferentzial autoblokeatzaileak.
d) Palierrak.

50.- Eskuzko marruskadura-enbrage monodiskoa osatzen duten elementuak: (Hautatu erantzun zuzena)

a) Enbrage-diskoa, enbrage-mazoa, palierra eta bihurgailu hidraulikoa.
b) Enbrage-diskoa, enbrage-mazoa, lepokoa eta eragintza-sistema.
c) Enbrage-diskoa, enbrage-mazoa, palierra eta eragintza-sistema.
d) Enbrage-diskoa, enbrage-mazoa, lepokoa eta bihurgailu hidraulikoa.

51.- Zer motatako ibilgailuetan erabiltzen da ardatz eragilea edo transmisio-ardatza?

a) Aurreko motorra eta atzeko trakzioa duten ibilgailuetan.
b) Aurreko motorra eta aurreko trakzioa duten ibilgailuetan.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) a) eta b) okerrak dira.

52.- Zein elementu elastiko erabiltzen dituzte esekidura-sistemek?

a) Malgukiak, baleztak eta bihurdura-barrak.
b) Malgukiak eta baleztak, besterik ez.
c) Barra egonkortzaileak.
d) Erreakzio-tiranteak eta trapezioak.

53.- Ibilgailuaren zein sistemaren egitekoa da gurpilak lurrarekin kontaktuan izatea, ibilgailuaren pisua jasatea eta martxan sortzen diren indarrak xurgatzea?

a) Esekidura-sistemarena.
b) Direkzio-sistemarena.
c) Segurtasun-sistemarena.
d) Gurpil- eta pneumatiko-sistemarena.

54.- Gainjarrita eta besarkagailu bidez elkartuta dauden altzairuzko xaflen multzoak, pisuaren ondorioz deformatzen direnean elkarren artean irristatzea ahalbidetzen dute. Nola deitzen zaie horiei?

a) Malgukiak.
b) Bihurdura-barrak.
c) Motelgailuak.
d) Baleztak.

55.- Zer esekidura motak du ibilgailuaren altuera konstante mantentzeko gaitasuna, barruko pisua edozein dela ere?

a) Trapezio bikoitzeko aurreko esekidurak.
b) Esekidura hidropneumatikoak.
c) Ardatz erdizurrun bidezko atzeko esekidurak.
d) Ardatz zurrun bidezko atzeko esekidurak.

56.- Automobilaren direkzio-sistema:

a) b) eta c) zuzenak dira.
b) Aurreko gurpiletan kokatuta dago.
c) Batzuetan lau gurpiletan kokatuta egoten da.
d) Atzeko gurpiletan kokatuta dago.

57.- Direkzio-sistema osatzen duten elementuak: (Hautatu erantzun OKERRA)

a) Bolantea.
b) Direkzio-kaxa.
c) Direkzio-bieletak.
d) Enbragea.

58.- Nola deitzen da bolantearen eta direkzio-kaxaren arteko lotura-barra?

a) Errotula.
b) Enbragea.
c) Tiranteria.
d) Direkzio-zutabea.

59.- Nola deitzen da gurpila zoruarekiko inklinazio batekin eusteko eginkizuna duen elementua?

a) Direkzio-kaxa.
b) Pibotea.
c) Mangeta.
d) Tiranteria.

60.- Kremaileradun direkzioaren funtsezko osagaiak: (Hautatu erantzun OKERRA)

a) Piñoia, hortz helikoidalekin.
b) Direkzio-zutabea.
c) Palierrak.
d) Kremaileran zizelkatutako barra.

61.- Esku-frenoaren zeregina, besteak beste, ondorengoa da:

a) Ibilgailua martxan dela abiadura moteltzea, besterik ez.
b) Aparkatuta dagoenean ibilgailua geldi mantentzea, mugitzeko arriskurik gabe.
c) Ibilgailua martxan dela abiadura moteltzea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

62.- Frenatzeko elementuak bi motatakoak izan daitezke:

a) Danbor-frenoak eta diskozko frenoak.
b) Danbor-frenoak eta danbor-frenoko platera.
c) Simplex danbor-frenoak eta complex danbor-frenoak.
d) Disko finkoko frenoak eta disko konplexuko frenoak.

63.- Frenatzeko sistema pedaletik edo esku-frenoaren palankatik aktibatzeko, eragintza-sistema bat behar da. Zer motakoa izan daiteke?

a) Hidraulikoa eta serbopneumatikoa.
b) Pneumatikoa eta elektrikoa.
c) Mekanikakoa eta eskuzkoa.
d) Hidraulikoa, pneumatikoa eta mekanikoa.

64.- Frenatzeko eragintza hidraulikoko sistemak elementu hauek ditu, besteak beste:

a) Freno-ponpa eta freno-likidoa.
b) Freno-ponpa, danborra eta zapatak.
c) Eragingailu hidraulikoak, diskoak eta freno-pastillak.
d) Frenatzeko erreduktorea eta frenoak finkatzeko platera.

65.- Gurpilak, besteak beste, elementu hauek ditu:

a) Pneumatikoa eta haguna.
b) Errodatze-banda, orpoa eta karkasa.
c) Pneumatikoa eta pneumatikoa.
d) Pneumatikoak, errodatze-banda eta karkasa.

66.- Gurpil-azalaren karga eta flexioak jasaten dituen pneumatikoaren zein zatitan daude identifikazio-markak?

a) Karkasan.
b) Alboan.
c) Orpoetan.
d) Zentratze-kordoian.

67.- Zer abantaila dute ganberarik gabeko pneumatikoek ganberadun pneumatikoekin alderatuta?

a) Zulatuz gero airea astiro galtzea, pisu txikiagoa izatea eta muntatzeko eta desmuntatzeko errazagoak izatea.
b) Hagunarekin zuzenean kontaktuan ez daudenez, bero-disipazioa txikiagoa da.
c) Zulatuz gero airea azkar galtzen dutenez, segurtasun handiagoa ematen dute.
d) Pisu handiagoa dutenez, egonkortasun handiagoa ematen dute.

68.- Pneumatikoaren inskripzioa 155/70 R 13 motakoa den kasuetan, zer adierazten du lehen zenbakiak (155)?

a) Pneumatikoaren zabalera, zentimetrotan neurtuta.
b) Pneumatikoaren distantzia errodatze-bandatik orporaino.
c) Hagunaren diametroa, orpoen asentuetatik neurtuta eta hazbetetan adierazita.
d) Pneumatikoaren zabalera, milimetrotan neurtuta.

69.- Pneumatikoko inskripzioa 155/70 R 13 motakoa den kasuetan, zer adierazten du azken zenbakiak (13)?

a) Pneumatikoaren zabalera, zentimetrotan neurtuta.
b) Pneumatikoaren distantzia errodatze-bandatik orporaino.
c) Hagunaren diametroa, orpoen asentuetatik neurtuta eta hazbetetan adierazita.
d) Pneumatikoaren zabalera, milimetrotan neurtuta.

70.- Zein dira bateriaren oinarrizko funtzioak ibilgailuaren sistema elektrikoaren barruan?

a) Korronte elektrikoa biltegiratzeaz arduratzen da, baita motorra hornitzeaz hau geldirik edo martxan dagoenean eta alternadoreak behar adina korronte sortzen ez duenean ere.
b) Zilindroaren barruan nahasketa sutzeko txinparta elektrikoa sortzen du.
c) Motor termikoa martxan jartzea.
d) Korronte alternoa korronte zuzen bihurtzen du.

71.- Ibilgailu baten abiatze-zirkuituak, besteak beste, honako elementu hauek ditu:

a) Bateria, bobina, bujiak eta banatzailea.
b) Pizteko giltza, errelea eta motor elektriko bat.



c) Alternadorea eta erregulagailua.
d) Bateria eta alternadorea.

72.- Ibilgailu baten bateriarekin lotutako hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Sei baso dituen kutxa batez osatuta dago. Bakoitzak 2,2 volt arte lortzen ditu, elkarrekin beharrezko 12 voltak lortzeko.
b) Lau baso dituen kutxa batez osatuta dago. Bakoitzak 3,2 volt arte lortzen ditu, elkarrekin beharrezko 12 voltak lortzeko.
c) Sei baso dituen kutxa batez osatuta dago. Bakoitzak 4,2 volt arte lortzen ditu, elkarrekin beharrezko 24 voltak lortzeko.
d) Lau baso dituen kutxa batez osatuta dago. Bakoitzak 6,2 volt arte lortzen ditu, elkarrekin beharrezko 24 voltak lortzeko.

73.- Ibilgailuko argi-zirkuituak zenbait zirkuitu elektriko biltzen ditu, besteak beste:

a) Argi keinukariak, freno-argiak eta atzerako martxako argiak.
b) Posizio-argiak, gurutzatze-argia, errepide-argia eta laino-argiak.
c) Osagarrien argiztapena eta kortesiazko argia.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

74.- Arau orokor gisa, zein da autobideko gehieneko abiadura anbulantzia ez-asistentzialen kasuan?

a) 120 km/h.
b) 100 km/h.
c) 90 km/h.
d) 110 km/h.

75.- Arau orokor gisa, semaforo edo seinale batek argibide ezberdinak ematen baditu ezkerrean eta eskuinean, zer agindu jarraitu behar da?

a) c) eta d) zuzenak dira.
b) c) eta d) okerrak dira.
c) Ezkerrean jarritakoa, aurrez aurre jarraitu edo ezkerrera biratu nahi baduzu.
d) Eskuinean jarritakoa, eskuinera biratu nahi baduzu.

76.- Zer izen dute betebeharrak, mugak edo debekuak adierazten dituzten seinaleek?

a) Berrespen-seinaleak.
b) Argibide-seinaleak.
c) Ohartarazpen-seinaleak.
d) Arau-seinaleak.

77.- Zein markak adierazten du gidariek debekatuta dutela marka zeharkatzea, markaren gainetik zirkulatzea eta, noranzkoak banatzen dituenean, ezkerretik zirkulatzea?

a) Luzetarako marka etengabeak.
b) Luzetarako marka etenak.
c) Marka etenari atxikitako luzetarako marka etengabeak.
d) Luzetarako marka eten bikoitzak.

78.- Baldintza meteorologikoak edo ingurumen-baldintzak txarrak direnean edo ikuspena nabarmen gutxitzen dutenean, zer argi erabiliko ditugu?

a) Atzeko laino-argiak.
b) Aurreko laino-argiak.
c) Aurreko eta atzeko laino-argiak.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

79.- Zer dokumentuk egiaztatzen du ibilgailuak zirkulatzeko behar diren baldintza teknikoak betetzen dituela?

a) Erantzukizun zibileko asegurua.
b) Zirkulazio-baimena.
c) Ibilgailuen azterketa teknikoko (IAT) txartela.
d) Ibilgailuaren ikuskatze txartela.

80.- Zer ezaugarri pertsonalek eragiten dute alkoholemia-tasarengan?

a) Pisuak.
b) Sexuak.
c) Adinak.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

81.- Zer egin behar da galtzada bustita dagoenean istripurik EZ izateko?

a) Aurrerapen gehiagorekin eta leunago frenatu.
b) Urez betetako tarte bat igaro ondoren frenoen eraginkortasuna probatu.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) Larrialdi-argiak piztu.

82.- Zein EZ da bihurgune bat hartzeko teknika on bat?

a) Bolantea doitasunez eta leunki biratzea.
b) Justu bihurgunean sartu aurretik azeleratzea eta azelerazio on bat ahalbidetuko duen martxa bat jartzea.
c) Bihurgunearen irteeran poliki eta modu iraunkorrean azeleratzea.
d) Bolantea emeki-emeki zuzentzea, bakarrik itzul dadin utzi gabe.

83.- Nola deitzen da bihotz-biriketako geldialdi bat gertatuz gero ahalik eta biziraupen-indize handiena lortzea helburu duen ekintza multzoa?

a) Babestu, abisatu, lagundu (BAL).
b) Biziraupen-katea.
c) Asistentzia katea.
d) Oinarrizko bizi-euskarriko katea.

84.- Zeintzuk dira biziraupen-katearen lehen mailan egin beharreko ekintzak?

a) Berehalako bihotz-biriketako bizkortzea.
b) Berehalako desfibrilazioa.
c) Bihotz-birika gelditzea goiz detektatzea eta laguntza eskatzea.
d) Bihotz-biriketako bizkortzea eta desfibrilazio goiztiarra.

85.- Bihotz-biriketako bizkortzearekin (BBB) lotutako hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Bihotz-biriketako bizkortzea egiten duen pertsonak beti konbinatu behar ditu aireztapenak eta konpresio torazikoak.
b) Bihotz-biriketako bizkortzea prestakuntza izan gabe ere egin daitezke konpresio torazikoak.
c) Larrialdietako zerbitzuek bakarrik egingo dute bihotz-biriketako bizkortzea aireztapenak eta konpresio torazikoak konbinatuta.
d) Bihotz-biriketako bizkortzea prestakuntza izan gabe konpresio torazikoak egiteak dakarren arriskua beti da lor daitekeen onura baino handiagoa.

86.- Erantzuten ez duen biktima heldu bat artatzen ari zara. Arnasketa egiaztatu eta arnasketa motel, urri eta zaratatsua du. 112 larrialdietako telefonora deitu eta norbait kanpoko desfibriladore automatiko bat bilatzera bidali ondoren, zer egin beharko zenuke?

a) Biktima segurtasuneko alboko posizioan etzan.
b) Bihotz-biriketako bizkortzea hasi, erreskateko bost aireztapen aplikatuz.
c) Bihotz-biriketako bizkortzea hasi, konpresio torazikoak aplikatuz.
d) Egoera baloratzen jarraitu biktimak arnasa normal hartu arte.

87.- Biktima heldu bat artatzeko orduan, zertara bideratu behar da beti lehendabiziko jarduketa?

a) Norberaren, biktimaren eta lekukoen segurtasuna egiaztatzera.
b) Bihotz-biriketako bizkortzea hastera.
c) Biktima segurtasuneko alboko posizioan jartzera.
d) Arnasketako aireztapenak hastera.



88.- Bihotz-biriketako geldialdian dagoen 5 urteko haur bat artatu behar duen bi profesional sanitario osatutako talde bateko kidea zara. Hurrengo jokabideetatik, zein da zuzena?

a) Ezer baino lehen, erreskateko bi aireztapen ematen hasiko gara.
b) Ezer baino lehen, 30 konpresio torazikorekin hasiko gara.
c) Ezer baino lehen, erreskateko bost aireztapen ematen hasiko gara.
d) Ezer baino lehen, 15 konpresio torazikorekin hasiko gara.

89.- Bihotz-biriketako geldialdian dagoen 9 hilabeteko haur bat artatzen ari den bi profesional sanitariok osatutako talde bateko kidea zara. Nola egin behar dituzue bularrezurreko konpresioak?

a) Behatz baten edo biren puntarekin.
b) Esku baten orpoarekin.
c) Bi eskuen orpoekin.
d) «Besarkada teknika» erabiliko da bi eskuekin.

90.- Gorputz arrotz batek eragindako aire-bideen buxadura duen 9 hilabeteko haur bat artatzen ari zara. Ez du eztul eraginkorrik egiten, baina kontziente dago. Hurrengo jokabideetatik, zein da zuzena?

a) Ezer baino lehen, bost konpresio abdominal aplikatuko dizkiogu.
b) Ezer baino lehen, erreskateko bost aireztapen aplikatuko dizkiogu.
c) Bost kolpe aplikatuko dizkiogu haurrari bi eskapulen artean.
d) Bost konpresio aplikatuko dizkiogu haurrari, abdomenean.

91.- Zer ezaugarri bete behar dituzte helduei aplikatutako konpresio torazikoek?

a) Konpresioaren abiadura minutuko 100 eta 120 errepikapen artekoa izan behar da.
b) Konpresioak 5 eta 6 cm artean hondoratu behar du bularra.
c) Konpresioak eta deskonpresioak denbora bera iraun behar dute.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

92.- Lehentasunezko errepide-sarea: (Hautatu erantzun OKERRA)

a) Trafiko handirik gabeko errepideak dira, eskualdeen arteko komunikazioa errazten dutenak.
b) Nazioarteko bideak dira.
c) Interes orokorreko portu eta aireportuetara sartzeko bideak dira.
d) Autonomia arteko trafiko handiko ibilbide luzeko bideak dira.

93.- Hautatu erantzun zuzena:

a) Autobide eta autobien nomenklatura A letrarekin hasi behar da.
b) Autobide eta autobien nomenklaturako letra fondo urdin baten gainean idatzi behar da.
c) Autobideen eta autobien nomenklaturan, letrari bi digitu erantsi behar zaizkio beti.

d) a) eta b) zuzenak dira.

94.- Lehentasunezko errepide-sarearen nomenklaturan, zer errepideri dagokio N-1 izendapena?

a) Bilbo-Zaragoza autobidea.
b) Madril-Donostia iparraldeko autobia.
c) Madril-Frantzia autobia.
d) Madril-Gasteiz iparraldeko autobia.

95.- Lehentasunezko errepide-sarearen nomenklaturan, zer errepideri dagokio Kantauriko Autobidea izendapena?

a) N-634.
b) A-8.
c) AP-1.
d) N-240.

96.- Lehentasunezko errepide-sarearen nomenklaturan, zer errepideri dagokio A-15 izendapena?

a) Burgos-Kantauri autobidea.
b) Portuko autobia.
c) Bilbo-Zaragoza autobidea.
d) Nafarroa-Gipuzkoa autobidea.

97.- Adierazi zertaz ari garen ibilgailuaren segurtasun aktiboaz ari garenean.

a) Gidariarengan ingurune eroso bat sortzen duten ibilgailuaren ezaugarri eta gailu guztiez.
b) Balizko istripuak saihesten laguntzen duten ibilgailuaren ezaugarri eta gailu guztiez.
c) Bidaiarien lesioak saihesten edo arintzen laguntzen duten ibilgailuaren ezaugarri eta gailu guztiez.
d) Airbagak eta segurtasun-uhalak.

98.- Automobilgintzan potentzia neurtzeko erabiltzen den unitatea zaldia da. Zenbat kilowatt-en baliokidea da?

a) 1,673 kilowatt.
b) 0,736 kilowatt.
c) 0,673 kilowatt.
d) 0,367 kilowatt.

99.- Motorraren funtzionamenduak birabarkian eta bieletan sortzen dituen kolpeak moteltzearen eginkizuna, zeri dagokio?

a) Esekidura-sistemari.

b) Koipeztatze-zirkuituari.
c) Hozte-sistemari.
d) Banaketa-sistemari.

100.- Bihurgunetan kulunkak saihestea helburu duen esekidurari erantsitako zein elementu muntatzen da aurreko eta atzeko ardatzean?

a) Erreakzio-tiranteak.
b) Trapezioak.
c) Barra egonkortzaileak.
d) Zeharkako barrak edo Panhard barrak.

101.- Zer elementuren xedea da frenatze-presioa biderkatzea pedalari eragiten zaionean?

a) Zerboasistentzia.
b) Frenatzeko erreduktorea.
c) ABS.
d) ASR.

102.- Bateria osatzen duten basoetako bakoitzean elektrolito bat dago. Zer osagai ditu?

a) Iturriko ura eta azido klorhidrikoa.
b) Ur destilatua eta azido klorhidrikoa.
c) Ur destilatua eta azido sulfurikoa.
d) Azido sulfurikoa eta azido klorhidrikoa.

103.- Erreakzio-denbora handitzea eragin dezaketen zenbait faktore daude. Hurrengoetatik, zein EZ da faktore horietako bat?

a) Sexua.
b) Adina.
c) Nekea.
d) Ibilgailuaren barruko tenperatura.

104.- Kanpoko desfibriladore automatiko bat jarrita bihotz-biriketako geldialdi batean, hurrengo zein erritmo izan daitezke desfibrilagarriak?

a) Asistolia eta pultsurik gabeko takikardia bentrikularra.
b) Pultsurik gabeko jarduera elektrikoa eta asistolia.
c) Fibrilazio bentrikularra eta pultsurik gabeko takikardia bentrikularra.
d) Fibrilazio bentrikularra eta asistolia.

105.- Hauek dira 4 denborako diesel motorren funtzionamendu-denborak:

a) Sarrera, leherketa, transferentzia eta ihesa.
b) Sarrera, konpresioa, errekuntza eta ihesa.
c) Sarrera, konpresioa, leherketa eta ihesa.
d) Sarrera, leherketa, errekuntza eta ihesa.

106.- Adierazi zein den baieztapen zuzena, 836/2012 Errege Dekretuaren arabera "Anbulantzia" hitzaren anbulantzietako idazkerari buruz:

a) Aurreko aldean alderantziz idatzita egongo da, errefrakzio bidez irakurri ahal izateko.
b) Atzeko aldean alderantziz idatzita egongo da, errefrakzio bidez irakurri ahal izateko.
c) Aurreko aldean alderantziz idatzita egongo da, islapen bidez irakurri ahal izateko.
d) Atzeko aldean alderantziz idatzita egongo da, islapen bidez irakurri ahal izateko.

107.- Hauek dira esekidura-sistema erabilienak:

a) Esekidura-sistema elektrikoak.
b) Esekidura-sistema sinpleak edo konbentzionalak, esekidura-sistema hidropneumatikoak eta esekidura-sistema adimendunak.
c) Giro-presioko aire-sistemak.
d) Sistema ez-konbentzionalak.

108.- Adierazi zein den baieztapen zuzena oztopoak eta arriskuak seinaleztatzeari buruzko 1428/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluari jarraikiz:

a) Larrialdi-ekipoen jarduna, betiere zerbitzuan badaude, tokian zirkulazioaz arduratzeko dagoen segurtasun-agenteak ezarritakoez bestelako lekuetan kokatu ahal izango da.
b) Larrialdi-zerbitzuetako ekipoek galtzada osoa hartu beharko dute beti.
c) Larrialdi-zerbitzuetako ekipoek tokian dauden zirkulazioa erregulatzeko arduradunak edo horren agenteek emandako jarraibideak bete beharko dituzte.
d) Larrialdietako ibilgailuak geratzea ez da gertaera berezitzat jotzen geratzeko orduan; bai, ordea, gelditzeko orduan.

109.- PRE/435/2013 Aginduaren arabera, EZ da administrazio-baimenik beharko errepide bidezko garraio sanitarioa egiteko:

a) Garraio sanitario pribatua egiten duten ibilgailuen kasuan.
b) Estatuko Segurtasun Kidegoen garraio sanitario ofizialetan eta pribatuetan.
c) Administrazioko organoek beren titulartasuneko ibilgailuekin egiten duten garraio sanitario ofizialetan.
d) Garraio sanitario publikoa egiten duten ibilgailuetan.



110.- PRE/435/2013 Aginduaren arabera, administrazioak egiaztatu ahal izango du baimenak emateko baldintzak behar bezala betetzen direla. Aldizkako bisatuaz gain, noiz eta zein dokumentu eska diezazkiokete titularrari?

a) Hiru urtean behin, ziurtagiri tekniko-sanitarioa.
b) Edozein unetan, egoki iritzitako egiaztagiriak.
c) Urtero, ezaugarri teknikoak, osasun-ekipamendua eta langileen hornidura.
d) Bost urtean behin, ziurtagiri tekniko-sanitarioa.

111.- 1428/2003 Errege Dekretuaren arabera, urbanizazio batean dauden eta erabilera publikora irekita ez dauden bide pribatuen titularrek arautu ahal dezakete zirkulazioa beren bideetan?

a) Bai, baldin eta Errege Dekretu horretako zirkulazio-arauak indargabetzen ez badituzte.
b) Bai, kasu guztietan, lursail pribatua delako.
c) Ez, inoiz ezin da zirkulazioa 1428/2003 Errege Dekretuaren arabera arautu.
d) Lursail pribatuetan ez dira zirkulazio-arauak aplikatzen, nahasmena eragin baitezake.

112.- Behin dokumentazio egokia aurkeztuta, zer egingo du organo eskudunak ziurtagiri tekniko-sanitarioa emateko?

a) Ofizioz emango du ziurtagiria.
b) 6 hilabete izango ditu ziurtagiria emateko, PRE/1435/2013 Aginduan jasota dagoen bezala.
c) Ibilgailua ikuskatuko du.
d) Gehienez 3 hilabete izango ditu ziurtagiria emateko, PRE/1435/2013 Aginduan jasota dagoen bezala.

113.- PRE/1435/2013 Aginduaren arabera, garraio sanitarioko ibilgailuen enpresa titularrak osasun-arloko organo eskudunari egiaztatu beharko dio ibilgailuetan parte hartzen duten bere langileek honako baldintza hauek betetzen dituztela:

a) 1428/2003 Errege Dekretua eta, hala badagokio, enpresa helbideratuta dagoen autonomia-erkidegoko arauak.
b) Agindu hau eta EAEko Errege Dekretua.
c) 836/2012 Errege Dekretua eta, hala badagokio, enpresa helbideratuta dagoen autonomia-erkidegoko arauak.
d) Osasunari buruzko Lege Orokorra.

114.- Adierazi erantzun OKERRA sarrera-kolektoreari dagokionez:

a) Kulatan dago, junturaz jarrita.
b) Erretako gasak zilindroaren barrutik ihes-hodira kanporatzeaz arduratzen da.
c) Gasak edo sarrera-airea zilindroaren barrualderaino bideratzeaz arduratzen da.
d) Normalean aleazio arinez edo plastikozko materialez egiten dira.

115.- Garraio sanitarioko ibilgailu-kategoria hauek egin ahal izango dute errepide bidezko garraio sanitarioa:

a) A1 motako anbulantziak, pazienteak ohatilan eramatekoak, edo A2 motako anbulantziak, gaixotasun infekzioso-kutsakorrak dituzten pazienteak eramatekoak.
b) A1 motako anbulantziak edo A2 motako anbulantziak, presaz eraman behar diren gaixoak garraiatzekoak.
c) A1 motako anbulantziak, konbentzionalak, edo A2 motako anbulantziak, bizi-euskarria ematekoak.
d) A1 motako anbulantziak, pazienteak ohatilan eramatekoak, eta A2 motako anbulantzietan edo garraio kolektibokoak.

116.- Zer ezaugarri izan behar ditu zelula sanitarioak 836/2012 Errege Dekretuaren arabera?

a) Gidariaren lekuaren mende dauden klimatizazioa eta argiztapena.
b) Ateak ezkerraldean eta atzealdean, pazientea erraz sartzeko adina irekitzen direnak.
c) Txasisari aplikatutako isotermia- eta intsonorizazio-neurriak.
d) Barruko estaldurak eta zoru iragazgaitzak, autoitzalgarriak eta garbigarriak.

117.- Ziurtagiri tekniko-sanitarioa lortzeko baldintzen artean, adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Ibilgailua matrikulatuta eta zirkulatzeko gaituta egon behar da, eta, lehen matrikulaziotik zenbatzen hasita, ez du 12 urteko antzinatasuna gainditu behar.
b) Azken aldizkako ikuskapen teknikoa indarrean egon beharko da.
c) Ibilgailuak EAEn matrikulatuta egon beharko du.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

118.- Adierazi zein den erantzun OKERRA maila-hagaxkari dagokionez:

a) Ibilgailu guztiek daukate elementu hori.
b) Erradiadorearen botilan sartzen den hagaxka bat da.
c) Gomendatutako gehieneko eta gutxieneko olio-maila adierazteko markak ditu.
d) Ibilgailu batzuek hagaxka elektronikoak dituzte.

119.- Ibilgailu moten sailkapenaren arabera, zein taldetakoak dira zerbitzu zibiletarako ibilgailuak (anbulantziak, suhiltzaileak, etab.) ?

a) Ibilgailu industrialak.
b) Ibilgailu mistoak.
c) Ibilgailu bereziak.
d) Ibilgailu zibilak.

120.- Hauek dira ibilgailuaren segurtasunean zuzenean eragiten duten neurriak:

a) Ardatzen eta aurkako ardatzeko gurpilen arteko distantzia.
b) Ardatzen eta ardatz bereko gurpilen arteko distantzia.
c) Ardatzen arteko distantziak ez du eraginik segurtasunean.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

121.- Hainbat enbrage mota daude. Adierazi aukera zuzena:

a) Pare-bihurgailu hidraulikoa (aldaketa automatikoetarako bakarrik).
b) Elektromagnetikoa.
c) Marruskadurazkoa.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

122.- Adierazi erantzun OKERRA. Gidatzeko leku eroso bat eskaintzeko, gailu hauek ditugu:

a) Ibilgailuaren barrutik maneia daitezkeen atzeraispiluak.
b) Bolantearen altuera erregulagarria.
c) Aginte-sistema.
d) Beira tindatuak.

123.- Automobiletan erabiltzen diren motelgailuak teleskopikoak dira, eta moteltze-noranzkoaren arabera honela sailka daitezke:

a) Efektu bikoitzeko motelgailuak, bi noranzkoetan moteltzen dutenak.
b) Gas-motelgailuak.
c) Efektu bakuneko motelgailuak, noranzko bakar batean moteltzen dute.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

124.- Istripuak gertatu ondoren ibilgailuko bidaiarien lesioak saihesten edo arintzen laguntzen duten ezaugarri eta gailuen multzoari honela deitzen zaio:

a) Segurtasun aktiboa.
b) Segurtasun pasiboa.
c) Barne-segurtasuna.
d) Prebentziozko segurtasuna.

125.- 2003ko azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren arabera, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legearen xedapenak EZ dira aplikatuko honako kasu hauetan:

a) Zehaztu gabeko kolektibitate batek erabiltzen dituen lursail pribatuetan.
b) Hiriarteko bideetan.
c) Autobideetako atsedenleku eta zerbitzuguneetan.

d) Erabilera publikotik kendutako eta jabeek soilik erabiltzeko diren finka pribatuko bideetan.

126.- Motorraren blokeari dagokionez, adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Blokea motorraren elementu nagusia da.
b) Barruan zilindroak daude.
c) Blokeak motorraren elementu mugikorrei eusten die, eta han daude hozteko eta koipeztatzeko zirkuituak.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

127.- Adierazi zein den erantzun zuzena kulatari dagokionez:

a) Freno-pastillekin batera, frenoaren elementu nagusia da.
b) Sarrera- eta ihes-balbulak biltzen ditu.
c) Blokeari beheko aldetik finkatzen zaio torloju batzuen bidez.
d) Eraikuntzari dagokionez, motorraren piezarik sinpleenetako bat da.

128.- Zein ezaugarri izan behar dituzte pistoiek?

a) Tenperatura altuei eusteko gai izan behar dute.
b) Inolako desplazamendurik gabeko elementu finkoak dira.
c) Astunak eta higadurarekiko oso erresistenteak izan behar dute.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

129.- Adierazi erantzun OKERRA motorraren segmentuek betetzen duten funtzioari dagokionez:

a) Zilindroaren eta pistoiaren arteko estankotasuna ziurtatzen dute desplazamenduetan, konpresio-ihesak saihesteko.
b) Gasak erretzen direnean sortzen den beroa kanporatzea errazten du.
c) Olioa konpresio-ganberara pasatzea errazten du.
d) Koipeztatze-segmentuak zilindroaren hormaren gainean utzitako olio-kantitatea dosifikatu behar du.

130.- Motor baten biraketak aipatzean, zeri egiten zaio erreferentzia?

a) Inertzia-bolanteari.
b) Birabarkiaren biraketei.
c) Kulataren biraketei.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

131.- 1428/2003 Errege Dekretuaren 18. artikuluaren arabera, zein obligazio eduki behar ditu kontuan ibilgailu bateko gidariak, bere gainerako bidaiarien eta bide-erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko?

a) Mugitzeko askatasuna.
b) Beharrezko ikuseremua.
c) Etengabeko arreta gidatzean.
d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

132.- Adierazi zein den erantzun zuzena take finkoei dagokienez:

a) Metalezko ontzi baten forma dute.
b) Horien kanpoko aldea espekan finkatuta dago eta barrualdea, hagaxkan.
c) Ez dute doitzeko aukerarik ematen.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

133.- Erradiadoreari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:

a) Aldi laburretan bero-kantitate handiak kanporatzeko gai izan behar du.
b) Betetzeko tapoi bat izaten du goiko aldean.
c) Erradiadorearen tapoia edozein unetan ireki daiteke, baita motorra bero dagoenean ere.
d) Tubularrak, abaraskadunak eta xafladunak izan daitezke.

134.- Banaketa-balbulak:

a) Bi zati dituzte: burua eta zurtoina edo isatsa.
b) Presio eta tenperatura altuak jasaten dituzte.
c) Fabrikatzeko kalitate handiko altzairuak erabiltzen dira.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

135.- Elektrohaizagailuei dagokienez, adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Gaur egun erabilienak dira.
b) Motor elektriko baten ardatzean kokatutako helize batzuk dira.
c) Erradiadorearen aurrealdean edo atzealdean egon daitezke.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

136.- 2013ko PRE/435 Aginduaren arabera, garraio sanitarioaren baimena bakarrik emango zaie Garraio Enpresen eta Jardueren Erregistroan erregistratutako ibilgailuei. Zeren inskripzioaren bidez?

a) Matrikula.
b) Bastidore-zenbakia.
c) Enpresaren erregistro-zenbakia.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

137.- Motorraren tenperaturari buruzko informazioa gidariari ematen dioten ibilgailuen sistemen artean, ohikoenak hauek dira:

a) Hozgarriaren tenperatura kritikoa adierazten duen argia.
b) Hozgarriaren tenperatura adierazten duen ordularia.
c) Hozgarri likidoaren maila adierazten duen argia.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

138.- Olioen ezaugarrien artetik, zer da biskositatea?

a) Fluido batek gainazalei itsasteko duen gaitasuna.
b) Fluido batek hodi batetik zirkulatzeko duen gaitasuna.
c) Olioa solidotzen hasten den tenperatura.
d) Propietateak luzaroan kontserbatzeko gaitasuna.

139.- Pneumatikoa gehiegi puztuta egotearen presioak eragiten dituen ondorioetako batzuk hauek dira:

a) Bero gehiegi sortzea, kontsumo handiagoa, pneumatikoan malgutasun handiegia, erosotasuna galtzea, errodatze-bandaren alboen higadura handiagoa.
b) Orpoen nekea, pneumatikoa gehiago zapaltzea, frenatzeko distantzia txikitzea, itsaspena handitzea.
c) Erosotasuna galtzea, orpoen nekea, pneumatikoan malgutasunik ez izatea eta ukipen-azalera txikitzea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

140.- Bihurgune bat hartzean ibilgailuak irrist egitea eragozten duen segurtasun aktiboko sistema elektronikoa:

a) ABS.
b) ASR.
c) ESR.
d) ESP.

141.- Adierazi zein den erantzun zuzena monograduko olioei dagokienez:

a) Biskositate-indize bakarra dute.
b) Kanpoko tenperaturaren aldaketak ez die ia eragiten.
c) Gaur egun erabilienak dira.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

142.- Adierazi zein den erantzun zuzena aire bidezko hozte-sistemari dagokionez:

a) Batez ere zilindrada txikiko motozikletetan erabiltzen da.
b) Kostu txikia dauka abantaila gisa.
c) Beroa transmititzean hozten da.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

143.- Adierazi zein den erantzun zuzena hozte-ponpari dagokionez:

a) Hozteko zirkuituan likidoaren zirkulazioa behartzeaz arduratzen da.
b) Zentrifugoa da, erradiadorearen behealdeko likido hozgarria xurgatzen du motorrerantz bultzatzeko.
c) Bere biraketak eta motorrarenak lotuta daude.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

144.- Adierazi marruskadura-enbrage sistemako zein elementuk transmititzen dion motorraren mugimendua abiadura-kaxari:

a) Enbrage-mazoak.
b) Enbrage-diskoak.
c) Abiadura-kaxak.
d) Bakar bat ere ez da zuzena.

145.- Gidariak enbrage-pedala zapaltzen duenean:

a) Diskoa abiadura-kaxari mugimendua transmititzen hasiko da.
b) Presio-platerak diskoa presionatuko du.
c) Abiadura-kaxara mugimendu primarioa transmitituko da.
d) Diskoak abiadura-kaxari mugimendua transmititzeari utziko dio.

146.- Frenaketa-sistema aktibatzeko sistema hidraulikoan, freno-ponpak…

a) Zirkuituan pedalaren gainean egiten den esfortzu mekanikoa seinale elektriko bihurtzen du.
b) Zirkuituan pedalaren gainean egiten den esfortzu mekanikoa presio hidrauliko bihurtzen du.
c) Atzeko gurpiletako frenatze-presioa aldatzen du, eusten duen pisuaren arabera.
d) Aurreko gurpiletako frenatze-presioa aldatzen du, eusten duen pisuaren arabera.

147.- Abiadura-kaxa lubrifikatzen da:

a) Likido hozgarriarekin.
b) Biskositate indize handiko olioarekin, balbolina izenaz ezagutzen dena.
c) Direkzio-likidoarekin.
d) Biskositate-indize txikiko olioarekin.

148.- Adierazi erantzun zuzena. Honako hauetatik zein da diferentzial-mota bat?

a) Gurpil bakarreko diferentziala.
b) Trakzio-diferentziala.
c) Diferentzial autoblokeatzailea.
d) Diferentzial doigarria.

149.- Transmisio-ardatza erabiltzen dute:

a) Aurreko motorra eta atzeko trakzioa duten ibilgailuek eta trakzio integraleko ibilgailuek.
b) Trakzio integraleko ibilgailuek bakarrik.
c) Atzeko motorra eta atzeko trakzioa duten ibilgailuek.
d) Aurreko motorra eta aurreko trakzioa duten ibilgailuek.

150.- Esekidura hidropneumatikoak, besteak beste, abantaila hau dauka:

a) Ibilgailuaren altuera konstante mantentzea, barnean duen pisua edozein dela ere.
b) Ibilgailuaren altuera lurraren baldintzetara egokitzen du, ibilgailuaren beraren pisua kontuan hartu gabe.
c) Ibilgailuaren altuera lurraren baldintzetara egokitzen du, ibilgailuaren pisua kontuan hartuta.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

151.- Hozte-zirkuituko likido hozgarria non gordetzen da?

a) Espantsio-botilan.
b) Haizagailu konbentzionaletan.
c) Tapoietan.
d) Kulatan.

152.- Hauek dira direkzio-sistema osatzen duten elementuak:

a) Bolantea, direkzio-ardatza, enbrage-mazoa, tiranteak, direkzio-bieletak eta errotulak.
b) Bolantea, direkzio-ardatza, direkzio-kaxa, kojinete axiala, direkzio-bieletak eta errotulak.
c) Bolantea, direkzio-ardatza, direkzio-kaxa, tiranteak, direkzio-bieletak eta trapezioak.
d) Bolantea, direkzio-ardatza, direkzio-kaxa, tiranteak, direkzio-bieletak eta errotulak.

153.- Direkzioaren lerrokadurari dagokionez, direkzio-sistemaren kotak honako hauek dira:

a) Atake-angelua, aitzinamendu-angelua, erorketa-angelua.
b) Konbergentzia, irteera-angelua, aitzinamendu-angelua, erorketa-angelua.
c) Konbergentzia, irteera-angelua, atake-angelua.
d) Konbergentzia, irteera-angelua, aitzinamendu-angelua, erorketa-angelua, atake- angelua.

154.- Lau zilindroko motor batek zilindro bakoitzean 250 cm3-ko edo ¼ litroko edukiera badauka, zein izango da zilindro-bolumena?

a) 1.000 cm3 edo 10 litrokoa.
b) 1.000 cm3 edo litro 1ekoa.



c) 1.000 cm3 edo 100 litrokoa.
d) Ezin da zilindro-bolumena jakin.

155.- Konbergentzia positiboa da:

a) Gurpilek aurrealdetik konbergitzeko joera izatea.
b) Gurpilek aurrealdetik dibergitzeko joera izatea.
c) Gurpilek kanpoko albotik konbergitzeko joera izatea.
d) Bakar bat ere ez da zuzena.

156.- Direkzio-sistemari dagokionez, mangetak:

a) Bolantea direkzio-ardatzarekin konektatzen du.
b) Zirkuitu hidraulikoa elikatzen du.
c) Gurpilari eusten dio fabrikatzaileak aurrez zehaztutako zoruarekiko inklinazioarekin.
d) Direkzioaren kremailera du izena.

157.- Adierazi zein den erantzun zuzena olio mineralei dagokienez:

a) Automobil-merkatuko olio ekoitzienak dira.
b) Findu gabeko petroliotik zuzenean lortzen dira.
c) Ez dute inolako gehigarririk.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

158.- Frenoei eragiteko sistema mota honetakoa izan daiteke:

a) Hidraulikoa, mekanikoa edo balantzina.
b) Balantzina, mekanikoa edo pneumatikoa.
c) Pneumatikoa, mekanikoa edo hidraulikoa.
d) Mekanikoa, hidraulikoa edo ardatz primariokoa.

159.- Adierazi erantzun OKERRA. Pazienteen Segurtasun Estrategiak aurreikusten dituen segurtasun-istripuen kudeaketan, elkarbanatutako ikaskuntzari dagozkion ekintzek honako hauek dituzte barne:

a) Jardunbide egokiak zabaltzeko aukera ematen duten komunikazio-estrategiak garatzea zerbitzu-erakundeetan (alertak, buletinak, saioak, etab.).
b) Tokiko, Estatuko nahiz nazioarteko beste zentro batzuetan jada ezarrita dauden eta emaitza onak izan dituzten jardunbide egokien ezarpena bultzatzea zerbitzu-erakundeetan.
c) Pazientearen segurtasuneko batzordeen funtzionamendua sendotu eta dinamizatzea.
d) Ikaskuntza erakunde-mailan sustatzea, eskuragai dauden erreminten bidez: Osagune, Intranet korporatiboa.

160.- ABS frenoen blokeoaren kontrako sistemaren eginkizuna da gurpilak blokeatzea SAIHESTEA:

a) Ibilgailua dezelerazio-fasean dagoen bitartean, frenoei eragiten dieten mekanismoen gaineko presio hidraulikoa txikituz.
b) Ibilgailua dezelerazio-fasean dagoen bitartean, frenoei eragiten dieten mekanismoen gaineko presio hidraulikoa handituz.
c) Frenatzea gurpil eragileetara bakarrik bideratuz.
d) Frenatzea gurpil ez-eragileetara bakarrik bideratuz.

161.- Zein da bihurgune bat hartzeko teknika on bat?

a) 1. Sartu aurretik frenatzea eta azelerazio egokia ahalbidetuko duen abiadura bat jartzea;2. Bolantea doi eta leun biratzea; 3. Leunki eta modu iraunkorrean azeleratzea; 4. Bolantea leunki zuzentzea, bere kasa zuzentzen utzi gabe.
b) 1. Sartu aurretik frenatzea eta azelerazio egokia ahalbidetuko duen abiadura bat jartzea; 2. Bolantea doi eta leun biratzea; 3. Leunki eta modu iraunkorrean azeleratzea; 4. Bolantea leunki zuzentzea eta bere kasa zuzentzen uztea.
c) 1. Bolantea doi eta leun biratzea; 2. Bihurgunearen ibilbidean frenatzea; 3. Leunki eta modu iraunkorrean azeleratzea; 4. Bolantea leunki zuzentzea, bere kasa zuzentzen utzi gabe.
d) 1. Bolantea doi eta leun biratzea; 2. Bihurgunearen ibilbidean frenatzea; 3. Leunki eta modu iraunkorrean azeleratzea; 4. Bolantea leunki zuzentzea eta bere kasa zuzentzen uztea.

162.- Pneumatikoan, zentratze-kordoia:

a) Sorbaldaren eta orpoaren arteko zatia da; non pneumatikoaren identifikazio-markak baitaude.
b) Errodatze-bandaren eta alboen arteko loturaren parte da.
c) Taloiaren goiko aldean dagoen irtenunea da; pneumatikoa hagunarekiko behar bezala kokatzen laguntzen du eta hermetikotasuna bermatzen du.
d) Aurrekoetako bakar bat ere ez da zuzena.

163.- Ibilgailuaren sistema elektrikoari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:

a) Automobilaren sistema elektriko nabarmenenak dira karga-zirkuitua, abio-zirkuitua, pizte-zirkuitua, argiztapen-zirkuitua, maniobra-zirkuitua eta osagarriak.
b) Elektrikoki alternadorea hiru zatiz osatuta dago: bobina magnetikoak dituen zati finkoa, iman gisa jarduten duen zati mugikorra eta konpresore bat.
c) Abio-zirkuituaren funtzioa da motor termikoa martxan jartzea.
d) Karga-zirkuitua alternadore batek, erregulagailu batek eta bateriak osatzen dute.



164.- Zer adierazten du auto baten baterian agertzen den "12V / 640A / 70Ah" adierazpenak?

a) Bateriak dituela 12 volt eta 640 ampereko gehieneko edukiera, eta ordubetez 70 ampere hornitzeko gai dela.
b) Bateriak dituela 12 volt eta 640 ampereko gehieneko edukiera, eta minutu batez 70 ampere hornitzeko gai dela.
c) Bateriak dituela 12 volt eta 70 ampereko gehieneko edukiera, eta ordubetez 640 ampere hornitzeko gai dela.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

165.- Bateriaren karga-zirkuituan, zer babesten du erregulagailuak?

a) Soilik abio-zirkuitua, motorrak (eta alternadoreak) oso azkar biratzen duenean sortzen den korrontea mugatuz. Alternadorea bera, saihestuz gehiegi berotzea kontsumo handia (korronte elektriko eskaria) dagoenean.
b) Zirkuitu guztiak, motorrak (eta alternadoreak) oso azkar biratzen duenean sortzen den korrontea mugatuz. Alternadorea bera, saihestuz gehiegi berotzea kontsumo handia (korronte elektriko eskaria) dagoenean.
c) Soilik bateria, erabat deskargatzea saihestuz.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

166.- Zeri deitzen diogu errepidea?

a) Herri batetik igarotzen den bide-zatiari.
b) Herritik kanpo dauden bide-tarte publiko zolatu guztiak, zeharbideko tarteak izan ezik.
c) Herritik kanpo dauden bide publiko zolatu guztiak, zeharbideko tarteak barne.
d) Automobilek bakarrik zirkulatzeko bideei.

167.- Zer abiaduratan zirkulatu ahal izango da gehienez autobide batetik furgoneta gisa sailkatutako anbulantzia batekin?

a) 80 km/h.
b) 90 km/h.
c) 110 km/h.
d) 120 km/h.

168.- Zeri egiten dio erreferentzia "Diseinuaren abiadura" kontzeptuaren definizioak?

a) Errepidearen sekzio baten gainean izan daitekeen gehieneko abiadura baldintza egokietan segurtasunez zirkulatzeko.
b) Errepidearen sekzio baten gainean izan daitekeen gutxieneko abiadura baldintza egokietan segurtasunez zirkulatzeko.
c) Errepidearen sekzio baten gainean izan daitekeen gehieneko abiadura baldintza desegokietan segurtasunez zirkulatzeko.

d) Errepidearen sekzio baten gainean izan daitekeen gutxieneko abiadura baldintza desegokietan segurtasunez zirkulatzeko.

169.- Adierazi baieztapen hauetatik zein den zuzena:

a) Gurpilak elementu hauek ditu: pneumatikoa, airea, haguna, balbula eta, batzuetan, ganbera.
b) Gurpilak elementu hauek ditu: pneumatikoa, trapezioak, haguna, balbula eta, batzuetan, ganbera.
c) Gurpilaren higadura-adierazleak hagunean daude.
d) Gurpilaren higadura-adierazleak orpoan daude.

170.- Zer adierazten du zeharkako marra eten batek galtzadan?

a) Geratzeko lerro bat da, eta adierazten du ibilgailuek ezin dutela zeharkatu, nahitaezko gelditze-seinale batek ezarritako betebeharra betetzeko.

b) Geratzeko lerro bat da, eta adierazten du ibilgailuek ezin dutela zeharkatu, ikuspena txikitzen duten ezohiko egoeretan izan ezik, pasatzen uzteko seinale batek ezarritako betebeharra betetzeko pasatzen utzi behar dutenean.
c) Zeharkako lerro etena da, galtzadarekiko paraleloa, non txirrindulariek lehentasuna baitute.
d) Galtzadan jarrita daude eta oinezkoentzako pasabide bat adierazten du.

171.- Talde ezberdinetako zirkulazio-seinaleak elkarren artean kontraesankorrak direnean, ordena honek ezarriko du lehentasuna:

a) 1. Agenteak, 2. Aldi baterako seinaleak eta balizak, 3. Semaforoak, 4. Seinale bertikalak eta 5. Bide-markak.
b) 1. Agenteak, 2. Semaforoak, 3. Seinale bertikalak, 4. Aldi baterako seinaleak eta balizak eta 5. Bide-markak.
c) 1. Agenteak, 2. Semaforoak, 3. Seinale bertikalak, 4. Bide-markak eta 5. Aldi baterako seinaleak eta balizak.
d) 1. Agenteak, 2. Aldi baterako seinaleak eta balizak, 3. Seinale bertikalak, 4. Semaforoak eta 5. Bide-markak.

172.- Zer esan nahi du agente batek txilibituarekin hainbat txistu labur eta maiz egiteak?

a) Berriz martxan jartzeko agintzen ari da.
b) Ibilgailuak geratzea agintzen ari da.
c) Bidean oztopoak daudela ohartarazten ari da.
d) Kontuz zirkulatzea nahitaezkoa dela ohartarazten ari da.



173.- Zirkulazio-baimenean ibilgailuaren identifikazio-datuak agertzen dira, hala nola:

a) Matrikula, ibilgailuaren marka eta plaza kopurua.
b) Titularra, GMB (gehieneko masa baimendu) eta pneumatikoen kodea.
c) Dimentsioak, tara eta titularraren datuak.
d) Ibilgailuaren modeloa, betetzen duen zerbitzua eta murrizketak.

174.- Zer ondorio ditu alkoholaren kontsumoak gidariarengan?

a) Portaera aldatzen dio eta tunel-ikuskera eragin diezaioke.
b) Depresioa eta antsietatea eragiten ditu.
c) Flashbackak eragiten ditu.
d) Neke-sentsazioa gutxitu eta loa atzeratzen du.

175.- Galtzadan elurra badago, ibilgailuak itsaspena gal ez dezan eta irristatu ez dadin, hau egin behar da:

a) Ahalik eta martxa laburrena erabili martxa hasteko.
b) Ahalik eta martxa luzeena erabili martxa hasteko.
c) Ahalik eta martxa luzeena edo altuena erabili beheranzko aldapetan.
d) Bihurguneen barruko aldean frenatzea, horietatik abiadura handian ateratzea saihesteko.

176.- Berehalako bihotz-biriketako bizkortzeak bihotz-biriketako gelditzearen biziraupena bikoiztu edo laukoiztu dezake erritmoa desfibrilagarria bada. Zein dira erritmo desfibrilagarriak?

a) Fibrilazio bentrikularra eta pultsurik gabeko takikardia bentrikularra.
b) Fibrilazio aurikularra eta takikardia bentrikularra pultsuarekin.
c) Asistolia eta pultsurik gabeko jarduera elektrikoa.
d) Asistolia eta fibrilazio bentrikularra.

177.- Zer posiziotan jarriko dugu pertsona bat, egiaztatu badugu konorterik gabe dagoela eta arnasa hartzen duela?

a) Aurkitu duzun posizioan, baldin eta arrisku handirik ez badago.
b) Segurtasuneko alboko posizioan.
c) BBB posizioan.
d) Erdi eserita.

178.- Arnasbidearen buxadura kasuan, pertsonak eztul egin badezake, honela jokatuko dugu:

a) Bizkarrean 5 kolpe emanez hasiko gara.
b) 5 konpresio abdominal eginez hasiko gara.
c) Pertsona eztulka jarraitzera animatuko dugu.

d) 5 konpresio toraziko eginez hasiko gara.

179.- Bakarrik bazaude inkontziente dagoen eta arnasten ez duen pertsona heldu batekin, larrialdi-zerbitzuei abisua eman ondoren, KDA bat badaukazu, honako sekuentzia honi ekingo diozu:

a) Erreskateko 5 aireztapen.
b) Bakarrik bazaude eta KDA bat hurbil baduzu, hasi KDA aplikatzen.
c) Hasteko, bihotz-masajea egingo dugu.
d) Erreskateko 2 aireztapen.

180.- 4 urteko haur bati konpresio torazikoak egitean, non egingo ditugu konpresioak?

a) Bularrezurraren goiko erdian.
b) Bularrezurraren beheko erdian.
c) Bularrezurraren goiko herenean.
d) Xifoide apofisiaren beheko ertzean.

181.- 2 urteko neskato bat konorterik gabe dagoela baloratu ondoren (ez du erantzuten), arnasbidea irekita badu, zenbat segundoz egiaztatuko dugu arnasa hartzen duen erabakia hartu aurretik?

a) 8 segundoz, gehienez jota.
b) 5 segundoz, gehienez jota.
c) 10 segundoz, gehienez jota.
d) 6 segundoz, gehienez jota.

182.- Funtzionaltasunaren arabera, interes orokorreko portu eta aireportuetarako sarbidea, honen barruan dago:

a) Lehentasuneko sarea.
b) Oinarrizko sarea.
c) Eskualdeko sarea.
d) Interes nazionaleko sarea.

183.- Diskozko frenoetan, freno-pastillak:

a) Danborrean daude eta burdinurtuz fabrikatuta daude.
b) Perimetro osoan zirrikitu erradialak dituzte, beroa sortzeko eta, hala, frenatzearen eraginkortasuna handitzeko.
c) Eragingailu hidraulikoa presionatzeko funtzioa dute.
d) Diskoa marruskatzen dute, abiadura murrizteko.

184.- Noiz eraman behar dira piztuta ibilgailu baten posizio-argiak?

a) Argi laburrak, argi luzeak edo laino-argiak piztuta daudenean.



b) Automatikoki piztu behar dira autoa abiatzean.
c) Piztuta izan behar dira, hiriarteko bideetan zirkulatzean.
d) Piztuta eraman behar dira eguzkia atera eta sartu bitartean.

185.- Gehieneko abiadurei dagokienez, zein gailenduko da?

a) Seinaleen bidez adierazitakoak.
b) Gidari jakin batzuei adierazitakoak, beren egoera pertsonalarengatik.
c) Ibilgailu jakin batzuei adierazitakoak, beren ezaugarriengatik edo zamaren ezaugarriengatik.
d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

186.- Zer esan nahi du aquaplaning hitzak?

a) Pneumatikoek ezin dute galtzadan dagoen ur-geruza kanporatu eta itsaspena galtzen dute.
b) Pneumatikoek ezin dute galtzadan dagoen ur-geruza kanporatu eta itsaspena gehiago dute.
c) Pneumatikoek ezin dute galtzadan dagoen olio-geruza kanporatu eta itsaspena gehiago dute.
d) Pneumatikoak blokeatu egiten dira frenoari bat-batean eragitean.

187.- Faktore hauetatik, zein da ezbehar-tasaren kausa nagusia?

a) Bidearen baldintzak.
b) Gidariaren distrakzioak.
c) Akatsak frenoetan eta argiztapenean.
d) Akatsak pneumatikoetan.

188.- Heldu batean bihotz-biriketako bizkortzea hasi ondoren, noiz etengo da berpiztea?

a) Agenteak iritsi eta konpresioak gelditzeko esaten dizutenean.
b) Osasun-laguntza profesionala iristen denean eta ordezten zaituztenean.
c) Inoiz.
d) Hasi eta 40-45 minutura eta errekuperazioaren zantzu argirik ez badago.

189.- 9 hilabeteko bularreko haur bati bihotz-biriketako bizkortzea egitean, zenbat zentimetro gutxi gorabehera jaitsiko dugu bularrezurra?

a) 2 zentimetro.
b) 3 zentimetro.
c) 4 zentimetro.
d) 5 zentimetro.

190.- Aldekonetik Loiuko aireportura iristen den errepide zatia, N-637 errepidean hasi eta aireportuan bertan amaitzen dena:

a) N-633.
b) N-629.
c) N-636.
d) N-639.

191.- Ibilgailu guztiek dituzte koipeztatze-zirkuitua egiaztatzeko eta kontrolatzeko zenbait sistema. Honako hauek dira erabilienak:

a) Maila-hagaxka eta maila-sentsorea.
b) Presio-erlojua.
c) Aire-presioaren manometroa.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

192.- Zer da zirkuitu bateko tentsio elektrikoa?

a) Aparatu elektriko batek, funtzionatzen ari denean kontsumitzen duen energia.
b) Material batek korronteari egiten dion erresistentzia.
c) Bi punturen arteko potentzial elektrikoaren diferentzia.
d) Zirkuitu batean metatutako energia osoa.

193.- Zein da ibilgailu elektriko bateko sare elektroniko batean Kontrol Elektronikoko Unitateen (KEU) funtzio nagusia?

a) Ibilgailuaren sistema elektrikoak guztiz ordeztea.
b) Ibilgailuaren sistema elektronikoaren berariazko zati bat kontrolatzea.
c) Ibilgailuaren funtzionamenduaren datuak gordetzea.
d) Sistema desberdinetarako beharrezkoa den energia elektrikoa sortzea.

194.- Zer da ibilgailu bateko gailu elektriko baten potentzia izendatua?

a) Edozein egoeratan gailuak har dezakeen gehienezko potentzia.
b) Adierazitako tentsioan lan egiten duenean gailuak sortzen edo kontsumitzen duen potentzia.
c) Aparatuak, funtzionamendu jarraituan ari dela, kontsumitzen duen potentzia erreala.
d) Aparatuak funtzionatzeko behar duen gutxieneko potentzia.

195.- Zein da motor elektrikoen funtzionamenduaren oinarria?

a) Erresistentzien bidez energia termikoa sortzea.
b) Eremu magnetikoen arteko elkarrekintzari aplikatutako elektromagnetismoaren legeak.
c) Energia kimikoa energia mekaniko bihurtzea.
d) Eroaleen erresistentzia elektrikoaren aldaketa.

196.- Nola egon daitezke motor elektriko tetrafasikoak barrutik konektatuak?

a) Seriean edo paraleloan.
b) Izar-forman edo triangelu-forman.
c) Karratuan edo gurutzean.
d) Irekita edo itxita.

197.- Motor elektriko sinkrono batean, zein elementuk osatzen dute multzo mugikorra?

a) Estatorea eta bobinak.
b) Errotorea, ardatza eta nukleoa.
c) Estatorea eta nukleoa.
d) Ardatza eta estatorearen bobinak.

198.- Ibilgailu elektrikoetan lineako komunikazio-sareek honako ezaugarriak dituzte:

a) Informazioa unitate zentral batetik beste guztietara aldi berean transmititzen da.
b) Informazioa une berean bidaltzen da unitate zentral batetik gainerako guztietara.
c) Unitate guztien arteko zuzeneko komunikazioa, ibilbide jakin bati jarraitu gabe.
d) Bi unitateren arteko bi noranzko transmisio esklusiboa.

199.- Bularreko haur bat bihotz-biriketako gelditze batean dago eta arreta ematen hasi zara. Erreskate-aireztapenak egiten hasi aurretik, zer egin behar duzu?

a) Haurraren burua oso luzatuta ipini.
b) Burua posizio neutroan dagoela ziurtatuko dugu eta kokotsa altxatu.
c) Burua alde batera biratuko dugu, arnasbideak garbitzeko.
d) Burua gorputz-enborrarekin lerrokatuta ipiniko dugu, kokotsa altxatu gabe.

200.- Agintaritza-agenteek ibilgailutik egindako seinale eta aginduen artean, zer adierazten du beherantz luzatutako beso inklinatu eta finkoari dagokion seinaleak?

a) Abiadura moteltzeko eta zuhurtasunez jarraitzeko betebeharra.
b) Bidearen ezkerraldean geratu beharra.
c) Seinalearen xede diren erabiltzaileen eskuinaldean geratzeko betebeharra.
d) Erreia aldatu eta aurrera jarraitu beharra.

Osakidetza

